



● ● ● ● ● ● ● ●

JUNTAS GENERALES DE ALAVA ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1998KO MARTXOAREN 31KO 10/1998 FORU ARAUA, ARABAKO FORU ADMINISTRAZIOAN ETA LURRALDE HISTORIKOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEARI BURUZKOA. (ALHAOko 43 zk., 1998ko apirilaren 14ko)

(Testu bateratua)

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 6.2 artikulua araberan, Autonomi Erkidego osoko erakundeek, Euskal Herriko egoera sozio-linguistiko ezberdinak kontuan hartuta, euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko dute; era berean, berorien izaera ofiziala erregulatuko dute eta ezaguera ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta neurriak hartu eta erregulatuko dituzte.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, euskararen erabilera normalizatzekoak, zenbait betebeharrak ezarri ziren herri administrazioei, herritarren hizkuntza eskubideak aitortzearen ondorioz.

Autonomi erkidego osoko erakundeak dira bi hizkuntzen koofizialtasuna erregulatzearen eskumena dutenak. Hala ere, Arabako Biltzar Nagusiek, 1983ko azaroaren 27ko bilkuran, onartu egin zuten Foru Araua, euskararen erabilera normalizatzeko, Arabako Foru Administrazioen menpean dauden argitalpenetan, agiritan eta bide errotulazioan. Foru Arau horrek oraindik garatu gabe zeuden 10/82 Legeko zenbait arau garatu eta egokitzen ditu.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzak arau bidez garatu zituen azaroaren 4ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera normalizatzeko, eta uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Eusko Funtzio Publikoari buruzkoa, Autonomi Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko.

Ordura artekoa Euskal Herriko Herri Administrazioetako hizkuntza normalizazioaren lehenengo urratsa izan zen. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, horren inguruan indarrean dauden arau guztiak bildu ditu eta bai Foru Administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek eta baita Biltzar Nagusiek ere ezarri behar dute bertan xedatzen dena, bakoitzeko hizkuntza normalizatzeko prozesuak ezarri horretarako.

Arabako Foru Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko arautegia jasotzen duen Foru Arau Proiektu honen helburua honako hau da, 1983ko azaroaren 27ko egoera berrira egokitzea; alde batetik, egoera soziolinguistikora, euskararen egoerak azkenengo 14 urteotan aurrerapauso handia eman duelako Arabako lurralde historikoan; bestetik, lege egoerara, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duelako 86/1997 Dekretua, Euskal Herriko herri administrazioetan erreferentzi puntua izateko asmoz jaio dena.

Izan ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1.2 artikulua adierazten duenez, "Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan kokatutako herri administrazioekiko harremanetan herritarrei euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko, herri agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera eskumen eremu guztietan normalizatu dadin, hala lanerako nola jendearekin harremanetarako hizkuntza moduan."

Orain proposatzen den testuak aurreko arautegia Foru Administrazioa egokitzeko asmoa du. Horretarako, batez ere kontuan hartzen ditu bai herritarrek Foru Administrazioarekin dituzten harremanak, eta bai Arabako lurralde historikoaren biztanleen arteko harremanak. Foru Administrazio barnean euskararen erabilera era berezian erregulatzen da; hain zuzen ere, foru erakunde bakoitzean Euskararen Erabileraren Normalizazio Plana onartu eta gauzatuko da, 86/1997 Dekretuaren 4. artikuluari jarraituz.

LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Hizkuntza ofiziala.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, Arabako Lurralde Historikoko eta bertako Foru Organoen hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala.

2. artikulua.- Aplikazio esparrua.

1.- Lege eta ezargarri diren gainontzeko arautegietan xedatutakoarekin bat etorritik erabiliko dute euskara Arabako Lurralde Historikoko Foru Organoek, hala bere barne funtzionamenduan nola herritarrekiko eta organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan.

2.- Arabako Foru Administrazioak Foru Arau honetan jasotako xedapenak beteko ditu bere barne eta kanpo harremanetan euskararen erabilera eta gizartearen elebitasuna normalizatzeko.

3. artikulua.- Lehentasunezko tratamendua gaztelaniarekiko benetako berdintasuna lortzeko.

Arabako Foru Administrazioak euskararen erabilera eta ezagutza bultzatuko ditu bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeko.

4. artikulua.- Herritarren hizkuntza eskubideak.

Euskal Herriko herritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ezezik, erabiltzeko eskubidea, hala ahoz nola idatziz. Ondorioz, Arabako Foru Administrazioak, indarreko legediak orohar onartutako eskubideen ildotik, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

a) Arabako Foru Administrazioarekin ahozko edo/eta idatzizko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

b) Arabako Foru Administrazioak antolatutako edo/eta kudeatutako ikasketa oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

c) Arabako Foru Administrazioak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabideren bidez jakitera ematen dituen berri eta xedapen oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.

d) Arabako Foru Administrazioak edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.

BIGARREN KAPITULUA.- EUSKARAREN ERABILERA ARABAKO FORU ADMINISTRATIOAREN BARNE FUNTZIONAMENDUAN. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEA.

5. artikulua.- Arabako Foru Administrazioarekiko harremanak euskaraz bermatzea.

Foru Administrazioak neurri egokiak hartuko ditu, berarekin harremanak euskara hutsean eduki nahi dituzten herritarren aukera bermatzeko.

6. artikulua.- Laneko hizkuntza.

4. eta 5. artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko neurriak hartuko ditu Arabako Foru Administrazioak. Hortaz, herritarren zerbitzurako hizkuntza ezezik, laneko hizkuntza ere izango da euskara Arabako Foru Administrazioan, arautegi honetan xedatutakoaren arabera.

7. artikulua.- Langileen euskalduntzea.

Aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko, Arabako Foru Administrazioak, langileen ordezkarien laguntzarekin, neurri egokienak hartuko dituzten langileen euskalduntzea lortzeko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzeko egiten den Planaren arabera. Dekretu horren bidez Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan Euskararen Erabilera Normalizazioa arautzen da (*EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 90/2000 Epaia*ren bidez, apirilaren 20koa, nulu bihurtu dutena, *2.460/98 helegitea*.)

8. artikulua.- Egitasmoaren helburuak..

Arabako Foru Administrazioak, 86/1997 Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxienezko helburu izango du datozen 5 urteetarako emango zaion derrigorrezko indize berria betetzea. Horretarako, harremanak hizkuntza bietan bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu.

Gutxienezko helburu hori bete eta gero, Arabako Foru Administrazioak 86/97 D.ko 17. artikulua arabera dagokiona baina goragoko helburu bat har dezake bere gain, langileen borondate-irizpideetan oinarriturik.

9. artikulua.- Lanpostuak betetzeko prozedurak.

1.- Hizkuntza eskakizuna deialdiaren datan derrigorrezkoa denean. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak betetzerakoan, ezarritako hizkuntza eskakizuna gainditu duten pertsonak hartuko dira, bai herri administrazioen zerbitzuan jarduteko langileak aukeratzeko prozesuetan, bai lanpostuak betetzekoetan.

Lanpostuak hizkuntza eskakizunari dagokion derrigortasun-data ezarrita duenean, beharrezkoa da horren berri ematea enplegu eskaintza publikoetan eta hautaketa prozesuetarako zein lanpostuak betetzeko deialdietan.

2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Arabako Foru Administrazioiko langile izateko hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizuna betetzea derrigorrezkoa denean, eskakizun hori egiaztatzea eska liteke, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautaketa probetan bertan edo langile finko izan aurretik egin beharreko trebakuntza ikastaroan nahiz praktikaldian.

Ikastaro eta praktikaldian parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da, hautaketa proben bidez, aurretik egiaztatzea, lanpostua betetzeko eskatzen den hizkuntza eskakizuna baino bi maila beheragokoa betetzen dela. Salbuespena izango da, lanposturako lehen eta bigarren hizkuntza eskakizunak eskatzen direnean. Kasu horietan euskara meritu moduan baloratuko da hautaketa-probetan.

3.- Hizkuntza eskakizuna deialdiaren datan derrigorrezkoa ez denean.

Bai langileak aukeratzeko, bai lanpostuak betetzeko, euskara ezagutzea meritutzat hartzerakoan egin beharreko balorazioa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98.4 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da. Hautaketa prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzakotzat hartuta, euskararen ezagutzari emango zaizkion portzentaiak ondorengo hauexek izango dira, ez txikiagoak, ez handiagoak.

1. eta 2. H E: %5etik %10era.

3. eta 4. H E: %11tik %20ra.

Dena den, Foru Administrazioiko kidego edo eskala berean hutsik dauden lanpostuetarako baremazio portzentaia bera izango da eta eskala horretan ohizkoa den hizkuntza eskakizunaren arabera ezarriko da.

10. artikulua.- Agiriak inskribatzea.

Arabako Foru Administrazioa sartzan diren edo bertatik ateratzen diren agiriak, idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira Lurralde Historikoaren Erregistroan, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak xedatutakoarekin bat.

11. artikulua.- Argitalpenak.

1.- Arabako Foru Administrazioak euskarazko argitalpenak sustatzen ahalegin bereziak egingo ditu.

2.- Halaber, kultura eta dibulgazio argitalpenak ere bi hizkuntzetan egitea sustatuko du.

3.- Arabako Foru Aldunditik ateratzen diren arau xedapen, ebazpen ofizial, jakinarazpen eta adierazpen guztiak bi hizkuntzetan idatzi beharko dira argitalpen ofizialetarako.

4.- Arabako Foru Administrazioan erabiliko diren eredu ofizialak bi hizkuntzetan inprimatu beharko dira.

12. artikulua.- Bilera-deiak.

Foru Administrazioaren organoen bilera-dei guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar dira.

13. artikulua.- Euskarazko lan-bilerak..

1.- Ohizko lan-hizkuntza izateko euskera aukeratzen duten bileretan aldebereko itzulpen zerbitzua egongo da nahi duten partaideentzat.

2.- Foru Administrazioan euskararen erabilera Normalizatzeko Planean adieraziko da zer bide berezi erabiliko diren lana euskaraz egin ahal izateko.

14. artikulua.- Aktak.

Diputatuen Kontseiluko eta Arabako Foru Aldundiaren menpeko beste edozein organismo akten jatorrizko testuak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira.

15. artikulua.- Komunikabideekiko harremanak.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, baina euskarazko mezuari lehentasuna emango zaio. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar, jakinarazpen eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira eta haiei jakinarazpen horien berri bi hizkuntzetan emateko eskatuko zaie.

16. artikulua.- Inprimakiak eta zigiluak.

Arabako Foru Administrazioak eta bere menpeko organoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntzetatik edozeinetan bete ahal izateko.

Halaber, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, Arabako Foru Administrazioaren eta bere menpeko organoen zigiluak, hala barneko agirietan nola jendeari ezagutarazteko agirietan estanpatuko direnak.

17. artikulua.- Foru egoitzetako errotulazioa.

Arabako Foru Administrazioaren egoitzetako errotulazioak bi hizkuntza ofizialetan agertu behar du.

18. artikulua.- Euskararen lehentasuna

Indarrean dagoen arautegiaren arabera mezu bat bi hizkuntza ofizialetan jakinarazi beharrekoa denean, euskarazkoak joan behar du lehen tokian.

19. artikulua.- Euskara soilik erabiliko den kasuak.

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara soilik erabiliko da:

1.- Arau honetako 5. artikuluan aipatutako herritarrei bidaltzen zaizkien gutunetan, agirietan eta jakinarazpenetan eta beraien eskariz irekitzen diren espedienteetan.

2.- Ohizko lan hizkuntza euskara duten organismoen bidalitako idazkietan.

3.- Jakinaraziko den ekintzaren izaerak eta hartzailearen berezitasunak horrela eskatzen dutenean.

Nolanahi ere, aurreko puntuetan aipatutako idazkiak arduradun administratibo edo politikoren batek sinatu behar izanez gero, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko zaio, euskera hutsezkoa soilik eskatu ezean. Ondoren, testu hori euskera hutsean bidaliko da.

HIRUGARREN KAPITULUA.- ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA ETA NORMALIZATZEA.

20. artikulua.- Herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko sustapena.

Hiru dira Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez Arabako Foru Administrazioak bere gain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua gehitzea, euskararen oraingo erabilera bermatzea eta euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabili dezaten bultzada iraunkorra ematea.

Foru Administrazioak etengabeko ekintzak bultzatuko ditu euskara eta gaztelara berdintasunez erabili daitezkeen.

Era berean, euskararen erabilera bultzatzeko eta hura erabiltzen den esparruak zabalagotzeko helburuaz, nahi duten herritarren euskarazko alfabetizazioa sustatuko du.

21. artikulua.- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea.

Arabako Foru Aldundiak helduen euskalduntzea eta alfabetatzea lortzeko prozesuak bultzatu eta burutuko ditu.

22. artikulua.- Gizartearen elebitasuna

Foru Aldundiak, Euskalduntze Zerbitzuaren bidez, Arabako lurralde historikoaren gizarte eta kultur bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera suspertzeko kanpainak egingo ditu, batez ere merkataritza, dendari, profesional, kultur eta kirol elkarteei zuzenduta.

Era berean, ume, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ekintzak bultzatuko ditu udalekin, eskualdeekin, herri-batzarrekin eta hizkuntz normalkuntzan lanean diharduten herritar elkarte eta taldeekin lanean.

23. artikulua.

1.- Toponimia.

Arabako Foru Aldundiak lurralde honetako Udalek finkaturiko kale, bide, auzo, mendi, ibai eta orohar toki-izenen izendegi ofiziala errespetatuko du eta, bere eskumen eremuaren barruan, haiei dagozkien mendi, ibai eta orohar ondasun guztien toki-izenen izendegi ofiziala finkatuko du, beti ere horien hizkuntz jatorria eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko berezia errespetatuz. Modu honetan, Arabako lurralde historikoko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspina egingo ditu Arabako Foru Aldundiak, eginkizun horren ardura

dagokion erakundearen zuzendaritzapean, gainerako erakundeekin koordinaturik eta Euskaltzaindiak ezarritako irizpideen arabera.

2.- Bide seinaleak.

Arabako Foru Aldundiaren menpean edo bere eskumen esparruan dauden urtegi, presa, etxe, eraikin eta orohar ondasun guztien izen, errotulazio, bide seinale eta iragarpen oro bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira.

24. artikulua.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatutakoaren arabera, botere publikoei neurri egokiak hartzea dagokie euskara gizarte eremu guztietan eta publizitatean euskararen erabilera sustatzeko eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehitzeko.

Beraz, Arabako Foru Administrazioak, aipatu helburuaren harian eta bere iharduketa eremuaren barruan, honako neurri hauek hartu eta betearaziko ditu.

1.- Dirulaguntzak.

Kultur, kirol eta aisi ekitaldiak egiten dituzten eta Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak hartzen dituzten talde, elkarte edo pertsona nahiz entitate juridikoek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte diruz lagundutako ekintzaren publizitatea egiten dutenean.

Era berean, halako ekitaldi batzuetan megafonia bidez ematen diren mezuak ere bi hizkuntzetan eman beharko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoa lehen tokian joango da.

2.- Foru instalazioen eta materialen erabilera.

Foru Administrazioaren instalazioak eta materiala erabili ahal izateko ere aurreko puntuan adierazitako baldintzak bete beharko dira. Foru Administrazioak, beraz, esandako hizkuntza baldintza horien berri eman beharko die interesatuei material eta instalazio horiek erabiltzeko baimena eman baino lehenago, eta fidantza itzuli baino lehenago egin ohi diren egiaztapenen artean, haiek bete direnez egiaztatuko da.

Dirulaguntza eskatzen duten talde, elkarte eta pertsona nahiz entitate juridikoek lehenago adierzi diren baldintzak bete ahal izan ditzaten, Arabako Foru Administrazioak beharrezkoak diren bitartekoak ipiniko ditu, behar dire itzulpen eta laguntza zerbitzuak eskainiz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa. Euskara Arabako Foru Administrazioan normalizatzeko Plana. (EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 90/2000 Epaiaren bidez, apirilaren 20koa, nulu bihurtu dutena, 2.460/98 helegitea.)

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 19.1 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, Arabako Foru Aldundiak, Gazteen Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak urtebeteko epea dute entitate bakoitzean euskararen erabilera normalizatzeko Planak onartzeko eta lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta, hala

dagokienean, derrigortasun data ezartzeko. Normalizazio plan horiei buruzko txostena egin beharko du Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den Batzordeak, haren eraginpeko Foru Administrazioak onartu ahal izateko.

Bigarrena. Jarraipen Batzordea.

Arau honen edukiaren jarraipena egiteko ohizko batzorde bat eratuko da Biltzar Nagusietan.

Hirugarrena. Batzordearen eginkizunak.

Batzorde honi dagokio arautegi hau betetzera zuzendutako proposamenak prestatzea, baita haren garapenaren jarraipen, kontrol eta ebaluaketa-lanak ere.

Langileen euskalduntzeari eta hizkuntza eskakizunen aplikazioari dagokionez, langileen ordezkariak beren lankidetzara eman ahal izango dute.

Aldizka, ezarritako helburuen betetze maila ebaluatuko du eta halaber euskalduntze prozesuaren edozein fasetan somatutako atzerapen edo eragozpenak gainditzeko neurri egokiak hartuko ditu.

Laugarrena. Emaitzen ebaluaketa.

Arautegi hau indarrean jartzen denetik bost urteren buruan, hizkuntza normalizazio prozesuan lortutako emaitzei buruz ebaluaketa orokorra egingo du eta, hala badagokio, arautegia berraztertzea proposatuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Indargabeturik geratzen dira Arau hauen maila bereko edo apalagoak izan eta haietan xedatutakoaren aurka doazen xedapen guztiak.